



HAUR ESKOLAK ETA HAURTZAINDEGIAK:
164 AZTERTU DITUGU, PRIVATU ETA PUBLIKOAK

- Kalitate maila ona erakutsi dute orohar haurtzaindegiek zein haurrentzako eskolek, bai pribatu eta bai publikoek
- Hezitzaileen trebakuntza eta eskura duten hornidura egokiak dira

Haurtzaindegi
publikoetan ez
dago leku nahikorik



Oraindik ez duzue haurtzaindegirik bilatu?” Seme-alaba berria besoetan, erditzearen izerdiak pasa direlako pozik, guraso berri askok zur eta lur hartzen dute inguruko eta lagunengaldera, behin eta berriz errepikatzen zaiena. Haurtzaindegia erraz aurkituko dutela uste dute guraso asko eta askok baina errealitateak ezetz dio, ez dutela hain erraz lortuko, bereziki plaza publikoa lortu nahi badute. 2008-2009 ikasturtean, sei urte arteko ia milioia eta zortzirehun mila haur joan ziren Espainian dauden 6.843 haur-eskola edo haurtzaindegietariko batera. Horietatik % 67ak zentro publikoa aukeratu zuen eta beste guztiek pribatura jo zuten, askok, nahita baino egoerak behartuta, ez bai-tzuten plaza publikorik aurkitu. CONSUMER EROSKI-k 164 haur eskola eta haurtzaindegi aztertu ditu (83 publikoak, 69 pribatuak eta 12 kontzertatuak), Espainiako 18 lurraldetan eta kalitatea ez, kantitatea, horixe dela arazoa ikusi du. Eskaintza publikoak ez du asebetetzen gizartearen eskaera, eta hobetu ere, apenas hobetu da. Izan ere, 2005an antzeko beste ikerketa batek egoera oso antzekoa erakutsi zuen. Ez da edonolako arazoa, kontutan izan behar baita eskola publikoan lekua askoz merkeagoa dela eta orohar, baita hobea ere, nahiz eta zentru pribatuen maila egokia den.

Prezioei begiratzeko orduan, denetarik dagoela esan behar da. Gurasoen maila ekonomikoari begiratu zaio normalean kobratzeko orduan eta beraz, era guztietako prezioak aurki daitezke, famili-egoeraren arabera. Pribatuen kasuen, haurra egun osoan uzten bada, bazkari eta askaria ordainduta, batez-beste prezioa 310 euro izaten dira hilean (2005an 254 euro ziren, % 22 gehiago orain). Baina aurkitu ditugu 200 eurotakoak zein 400dik gora euro kobratzen dutenak. Alde horiek lurralde batetik bestera nabarmenak dira (Bartzelonan, adibidez, 410 euro kostatzen da zerbitzua batez-beste eta Kordoban, oster, 200 euro eskas) baina lurralde berean ere aurki daitezke. Murtzia, Sevilla eta Alacant, adibidez, 240 euro kosta-tzen da hilean zerbitzurik garestiena eta merkeena, berriz, 45 euro baino ez. Bizkaian 60 eurokoa aurkitu dugu eta Errioxan, beste horrenbeste. Gehiago ordaintzeak, gainera, ez du esan nahi zerbitzu hobea jasoko dugunik. Eskola publikoetan, batez-beste, hezitzaile gehiago dituzte guk aztertu ditugun hiru adin-taldeetan (urtea egin arteko umeak, urte bete eta bi artekoak eta bitik hiru bitartekoak). Eskola publikoak dira, halaber, patio eta lorategi propio gehiago dituztenak.

Ordutegiak, oster, malguagoak dira zentru pribatuetan eta ordutegi ofiziala 8 ordu badira ere, zentroaren jabetza pribatua denean hamar ordu ere gera litezke haurtxoak eskolan. Haurtzaindegi publikoen % 96ak onartzen dituzte hezkuntza behar bereziak dituzten umeak (2005an proportzioa berdina izan zen) eta pribatuetan berriz, por-tzentaia % 88koa da (hobetu egin da, hala ere, % 81 zen duela lau urte). Gurasoak lasai egon daitezzen zera esan daiteke, bai pribatu bai publikoetan, hezitzaileen maila eta trebakuntza egokiak



direla (Haur Heziketako Irakasleak dira, Haurtzaindegietako Teknikari Adituak edo Haur Heziketako Goi Teknikariak).

CONSUMER EROSKI-k 164 haur eskola aztertu ditu, beraien ezaugarriak eta eskaintzen dituzten zerbitzuak. 83 ziren publikoak, 69 pribatuak eta 12 kontzertatuak. Honako lurralde hauetan: A Coruña, Araba, Alacant, Asturias, Bizkaia, Bartzelona, Errioxa, Gipuzkoa, Granada, Kordoba, Madril, Malaga, Murtzia, Nafarroa, Sevilla, Valentzia, Valladolid eta Zaragoza. Seme edo alabarentzat leku bila zeuden gurasoen itxura eginez, aldizkari honetako teknikariek banan-banan bisitatu zituzten 164 zentruak eta hori baino lehen telefonoz eskatu zuten beharrezko informazio guztia, haurtzaindegietako arduradunekin hitz eginez (eskola publiko batzuetan ezin da bisitarik egin ez bada lehenik eta behin zuzendariaren edo erakunde publikoen baimena eskatzen eta kasu horietan teknikoek esan egin behar izan zuten CONSUMER EROSKI-rentzat ari zirela).

HILEROKO KUOTA... ETA BESTE HAINBAT GASTU

Hamar eskola pribatutik bederatzik matrikula egiteagatik kobratu egiten dute. Batez-beste 127 euro izaten dira (duela bost urte baino % 48 gehiago), baina alde nabarmenak daude (215 euro kobratzen dira batez-beste Araban eta 65 euro Asturiasen). Gainera, zentruen % 10ean ez da matrikularik ordaindu behar.

Izen ematea, oster, lehenbiziko gastua baino ez da, bereziki eskola pribatua aukeratu duten gurasoentzat. Gero etorriko dira uniformearen gastua, kanpora egiten diren ibilaldiena, igeriketa klaseena (igerilekua duten eskoletan), jaiena (Gabonetan eta ikasturte amaieran egiten direnena), psikomotrizitate klaseena, psikologoarena, Guraso Elkartearen kuota eta baita berogailuarena ere. Aztertu ditugun hamar eskolatik zortzitan (denak pribatuak ziren), umeei janaria berotzen bazaie kobratu egiten eta, nahiz eta etxetik ekarritakoa izan. Sevillako bost eskoletan, eta Zaragoza, Asturiaseko eta A Coruña-ko banatan 10 eta 80 euro artean kobratzen dituzte hilean esandakoagatik: janaria berotu edota haurri emateagatik.

HAURTZAINDEGI PUBLIKO ETA PRIBATUEN PREZIOAK

Haurtzaindegi publikoetan 3 urtetik beherako haurrentzat leku nahikorik ez dagoenez, guraso asko eta asko kanpoan geratzen dira. Erkidego autonomoen arteko arauak bateratzeko, Administrazioak ezartzen dituzten dezentzako irizpideak, gutxi-gora-beherakoak behintzat. Nori ematen zaion plaza? Ba, gurasoek irabazten dutena hartzen da kontutan, etxetik urbil edo gurasoen lantokitik gertu dagoen zentroa zein den, ume bakarra ala >



HEZITZAILE BAKARRAREKIKO DAGOEN HAUR KOPURUA

LURRALDEA	Hezitzaile bakarreriko haur kopurua 0-tik urte bete arte		Hezitzaile bakarreriko haur kopurua, urte bete eta bi artean		Hezitzaile bakarreriko haur kopurua, 2 eta 3 urte artean		
	Jabetza	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua
A Coruña		5,9	8,7	11,4	12	10,3	20
Araba		4	6,5	7	8,3	9,8	13,4
Alacant		8,8	5,3	11,3	8,7	15,3	11,2
Asturias		4,3	7	6,5	9,8	10,9	9,5
Bartzelona		7	6	9,8	8,1	9,5	10,3
Bizkaia		6,3	8	6,6	9,8	-	10,5
Errioxa		4,6	6,3	7	10,1	11,5	11,9
Gipuzkoa		5,6	8	6,4	8,3	-	10,3
Granada		5,8	8	11	7,8	12,8	11
Kordoba		6	7,3	10	13,3	13,1	14,9
Madril		5	6,6	7,9	9,9	12,7	14,2
Malaga		8,7	7	10,3	12,5	13	16,7
Murtzia		8,3	8	11,2	13	15,4	11,3
Nafarroa		7	4,7	7,8	5,5	9,3	18,5
Sevilla		6	7,3	10,5	11,5	13,3	16
Valentzia		5,6	5,4	10,1	9,3	11,8	15
Valladolid		7,3	8	9,5	9,8	11	11,7
Zaragoza		7,6	7	6	8,5	12,7	18
BATEZ-BESTEKOA		6,3	6,9	9	9,8	12	12,1

HAUR ESKOLA PRIBATUETAKO PREZIOAK⁽¹⁾

	Matrikularen prezioa ⁽²⁾	Gehienezko prezioa	Gutxienezko prezioa	Jantoki zerbitzuaren hileroko prezioa ⁽³⁾	Gehienezko prezioa	Gutxienezko prezioa	Egun osoa egitearen prezioa, eurotan ⁽⁴⁾	Gehienezko prezioa	Gutxienezko prezioa	Ordutegi zabalagoa erabiltzearen prezioa, eurotan ⁽⁵⁾	Gehienezko prezioa	Gutxienezko prezioa
A Coruña	168	220	100	125	150	100	246	340	195	-	-	-
Araba	215	320	130	93	110	65	356	395	270	34	34	34
Alacant	146	210	55	128	147	114	327	414	224	42	50	34
Asturias	65	80	60	83	85	80	367	420	333	20	20	20
Bartzelona	173	214	100	164	205	130	413	465	370	49	51	45
Bizkaia	105	150	80	130	130	130	265	295	250	-	-	-
Errioxa	114	150	100	110	110	110	389	420	360	-	-	-
Granada	127	190	70	101	105	97	289	348	230	18	18	18
Gipuzkoa	126	275	35	135	135	135	304	362	250	-	-	-
Kordoba	130	150	120	-	-	-	191	273	140	-	-	-
Madril	157	250	38	166	212	120	375	415	340	30	30	30
Malaga	87	175	30	87	100	60	286	310	265	30	30	30
Murtzia	99	125	50	92	132	56	264	338	132	31	40	23
Nafarroa	93	100	80	81	100	70	368	420	330	-	-	-
Sevilla	108	125	80	97	165	50	287	410	170	32	60	15
Valentzia	124	170	90	119	130	90	280	335	180	39	60	30
Valladolid	108	155	75	110	120	100	299	340	270	30	30	30
Zaragoza	88	120	50	93	120	65	230	270	130	39	50	27
BATEZ-BESTEKOAK	127			112			310			35		

(1). Prezio guztiak eurotan ematen dira, lurralde bakoitzean aztertu diren haur eskola pribatuen batez-besteak dira (2). Matrikula egitea edo izen-ematearen prezioa, batez-beste. (3). Jantoki zerbitzuaren prezioa, batez-beste (askaria barne), zerbitzu hori aparte kobratzen bada. (4). Zortzi ordutako zerbitzuaren prezioa, batez-beste, bazkaria eta askaria barne. (5). Beste ordu betez ordutegia zabaltzeagatik egunean kobratzen dena, batez-beste.

ORDUTEGIAK, ZERBITZUAK ETA ZENTROAK

Jabetza	Bertan egin dute jatekoa	Katerin zerbitzua dute hartzen dituzte	Lau hankan ez dakiten haurrak hartzen dituzte	Behar bereziak dituzten haurrak hartzen dituzte	Sarrera-iteera ordutegi malgua dute	Gurasoentzako eskola dutenak	Argi naturala duten gelak	Komunak dituzten gelak	Gela zabalak	Lorategi edo patioa dute (edo biak)
Publikoa	70,4%	23,5%	89%	96%	25%	36,1%	98,8%	83,1%	97,6%	95%
Pribatua	61,8%	32,4%	90%	88%	69%	44,9%	92,8%	75,4%	81,2%	77%
BATEZ-BESTE	65,8%	28,6%	90%	93%	48%	40,2%	95,79%	80,5%	89,6%	87%

seme-alaba asko ote diren etxean, gurasoen lan egoera zein den, ezindurik ote dagoen familian edo eskola berean beste anai-arrebarik ote duen umeak. Irizipide hauexek erabiliko dira hileroko kuota ordaintzeko eta horiexek baita ere garraioaren, izen ematearen eta jantokiaren gastuak kobratzeko.

Eskola publiko gehienetan hilero ordaintzen denarekin umeak egun osoa egin dezake eskolan eta jantokia erabili. Prezio aldaketa nabarmenak ikusi ditugu guk, hala ere (367 euro Gasteizen eta 136 Murtzian) eta erkidego autonomo batek edo besteak, nork duen eskuduntza, hori ere nabaritu dugu (279 euro kostatzen dira Andaluziako Juntak jarritako eskolak eta 198 euro Eusko Jaurlaritzaren esku daudenak).

Prezio publiko hauek, oster, gehien-gehienezko tarifak dira eta oso gutxitan kobratzen dira. Leku nahikorik ez dagoenez diru gutxien duten familien beharrak hobesten dira eta beraz, gastuaren zati bat diruz lagunduta izaten dute.

ORDUTEGIETAN, DENETARIK

Zortzi orduz egoten dira zabalik, normalean, eskola publiko zein pribatuak. Hala ere, egon baduade sei orduz bakarrik aritzen diren zentruak eta hamar orduz ateak zabalik dituzten eskolak ere, gehienak pribatuak. Aztertu ditugun eskolen erdietan gera daitzke umeak hasieran adostutako orduak baino gehiago (pribatuen % 70ak ematen du aukera hau eta publikoen % 39ak soilik). Hori bai, gurasoek zerbitzu hori erabiltzen badute, ordaindu egin behar dute, batez beste, 35 euro hilean, duela lau urte baino 9 euro gehiago.

Beste aukera bat irteera eta sarrera ordutegi malgua da. Modu horretan, haurrak adostutako orduak baino ez dute egingo gelan baina gurasoen ordutegira moldatu ahal izango ditu. Duela lau urte eskolen % 94ak ematen zuen aukera hau, baina orain % 47,5ak baino ez du ematen. Beharbada, azalpena dirudien baino errazagoa da: eskola horietako asko eta askok ordutegi malguaren orde, ordutegi zabala eskaintzea erabaki dute. Orain-

dik orain, eskola pribatuak dira malguenak, % 69ak ematen du aukera hau eta publikoek artean, % 25ak soilik.

Hamarretik zazpi haur eskola edo haurtzaindegik irailetik uztaileera egiten dute lan (% 10ak abuztuan ere zabalik izan ditu ateak, gehinetan pribatuek). Baina askok udako hilabete horietan ordutegi laburragoa dute eta Aste Santuan, Gabonetan eta herriko jaietan itxi egiten dute.

HEZITZAILEEN TREBAKUNTZA EGOKIA DA

Zentro hauetan lan egiten duten profesionalen trebakuntza egokia dela esan liteke (denak dira Haur Hezkuntza egin duten Magisteritza diplomatuak, Haurtzaindegietako Tekniko Adituak edo Haur Hezkuntzan Goi Teknikariak). Hiru eskolatik batek psikomotritzitatean adituren bat dauka eta psikologoa ere bai. Baina % 11ak bakarrik terapeutaen bat. Hala ere, era honetako aditurik ez duten lekuetan kanpoko aholkularitza izaten dute beharrezkoa denean, pediatren laguntza (zentruen % 41ak), elikaduran adituena eta logopedian adituena (% 45a, bi kasuetan).

Ikasketa egokiak izateaz gain, bada beste irizpide garrantzitsurik umeak ondo jagonda daudela jakiteko. Hezitzaile bakoitzak zenbat umeren kargu hartzen duen, alegia. Zenbait autonomi erkidegotan exijitzen diren gutxienekoak zabalagoak badira ere, adituen iriziz, hauek dira bete beharreko kopuruak: urte betetik beharrezko haurren kasuan, hezitzaile bat zortzi haurtzaindegiko eta umeak 8 urte baino zaharagoak badira, hezitzaile bat 13 umerentzako. Beti ere, gutxienekoari gara, eta bi urte edo hiru urte izatearen artean alde handia dago. Bi urtetik beharrezko umeen kasuan hogeiren ardura izan dezake pertsona bakarrak, hiru urte eta sei artean hogeitabost ere har ditzake.

CONSUMER EROSKI-ren txostenak erakutsi duenez, hezitzaile bakarra dago haurtzaindegiko publikoetan 6,3 ume bakoitzekiko eta 6,9 ume bakoitzekiko haurtzaindegiko pribatuetan. Urte betetik beharrezko haurren kasuan beti ere. Urrengo taldean ere (urte bete eta bi urte arteko taldean), egokia da hezitzaile eta ume kopuruaren arteko harremana, 9 umeekiko hezitzaile bakarra publikoetan eta pribatuetan 9,8 umeekiko bat. Bi eta hiru urte arteko umeen kasuan ere, hezitzaileek ez dute behar baino ardura handiagorik. Hezitzaile batek 12 umeren kargu hartzen du, batez-beste, berdin publiko zein pribatuetan.

ZENTROAK OSO SEGURUAK DIRA, GARBIAK ETA TXUKUNAK

Bisitatu ditugun eskolak seguruak direla esan dezakegu eta segurtasuna hobetu egin dela 2005ko txostenarekin alderatuta. Zentro gehienetan larraldietarako plana >





NOLA DAKIT NIK ESKOLA HAURRARENTZAT EGOKIA DELA?

Gurasoentzako gogorra izan da ume txikia beste inoren esku uztea eta maiz, beste ezerk baino gehiago ardura die eskola egokiarekin asmatzeak. Beldurra ematen du beti hautaketak eta beldurra uxatzeko modu bakarra eskola egokia aukeratzeari denbora eskaintzea da. Komeni da, hori egiterakoan, honako alderdi hauei erreparatzea:

Zentroa	Hezitzaileak eta heziketa-eskaintza	Azpiegiturak	Segurtasuna
<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskola edo haur eskola bat baino gehiago bisitatu: zerbitzuak, azpiegiturak, ordutegiak konparatu. 2. Etxetik urbil dagoena aukeratu, posible denean. Haurrari on egiten dio bere inguruarekin harremanetan egoteak. 3. Ordutegi malgua duten zentroak hobekien dira gurasoentzako. Jakina, beti ere, norbere ordutegiarekin eskolakoei ezin zaiela trazarik egin argi izanik. 4. Jantokia badu, garbi dagoela bermatu behar da eta haurrei ematen zaizkien menuak elikadura ikuspegitik begiratuta egokiak direla ikusi. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Haurrak adinaren araberrako talde txikietan banatuta egon behar dira. Hona hezitzaile bakoitzak bere ardurapena euki beharko lituzkeen haurrak: -0 eta urte bete arteko haurrentzat: hezitzaile bana zortzi haurrentzako. -Urte bete eta 2 arteko haurrentzat: hezitzaile bana 13 umerentzako. -Urte 2 eta 3 urte artean: 18 edo 20 umeren kargu har dezake hezitzaileak. 2. Hezitzaileak Haur Heziketako Irakasleak, Haurtzaindegietako teknikari adituak edo Haur Heziketako Goi Teknikariak izan behar dira. 3. Haurrekin lan egiteko pazientzia behar da, xamurtasuna eta irmotasuna. Haurrak nola tratatzen dituzten begiratu. 4. Eskolak hezkuntza programa izan behar du: experimentazioari bideratutako jarduerak, materiale desberdinak deskubritzeko jokuak eta musika zein zentzumenekin harremanetan duten ariketak egin. Hitzkuntzak irakasten badiuzte, hobe. 5. Gurasoei haurrari buruzko ze informazioa ematen den galdetu. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Arretaz begiratu eskola non dagoen, hezkuntzarako prestatuta dagoen eraikinen baten edo beste nonbait. Hala bada, bere sarrera propia duen begiratu behar da. 2. Era berean, udalak baime-na emateko behar duen osasun egoeran egon behar du, bizigarritasun, segurtasun eta irisgarritasun baldintza gutxienezkoak errespetatu behar ditu. 3. Geletan argia sartu behar da, argi naturala, ahal dela. Eta zabalak eta garbiak izan behar dira. Bakoitzak bere ikasketa eremua izan behar du eta urte birik beherako haurrentzat atseden lekua izateaz gain, jolastokia ere izan behar dute, beste haur nagusiagoen lekutik bananduta, beti ere. 4. Gela bakoitzean komuna dagoen begiratu. Hezitzaileak erabiltzen dituzten komunak eta haurrenak ongi banatuta egon behar dira. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Begiratu arretaz zolua eta hormei: zoluak epela izan behar du eta ondo egina egon, estropozurik ez egiteko moduan. Garbitzeko errazak izan behar dira eta labain egiten ez dutenak. Hormak leunak izan behar dira eta horiek ere, garbitzeko errazak, inolako eragozpenik gabeak. 2. Umeek jolasteko erabiliko duten lekuari begiratu. Kanpoan egongo badira, lurra laua izan behar da, ez gogorregia, eta segurua. Harri koxkorrik eta harerik gabea. Zauri eta infekzioei aurre hartuko zaie horrela. 4. Leihoak umeen eskuetatik urrun egon behar dute edo, hesituta. Kristalak apurtzen ez direnak izan behar dira. 2. Eskaileretan ume txikienek oratzeko altueran jarriko da eskudela. 3. Ateak hatzamarretan minik ez hartzeko moduan eginda egongo dira. 4. Loki edo entxufeak umeen eskuetatik urrun egongo dira. 5. Osasunerako kaltegarri edo arriskutsu den edozer giltzaz itxitako arasean gordeko da. 6. Mahaiek eta bestelako altzairuek ezingo dute ertz arriskutsurik euki.

dute, nahiz eta erdiak soilik (publiko zein pribatu) egin zuten aurreko urtean sute-itxurarik. Zentro gehienetan daude su- itzalgailuak, larrialdi irteera ongi argiztatuak eta alarma egokiak, baina faltan bota ditugu suaren kontrako atek eta ke detektagailuak.

Ume txikienek eskatzen dituzten segurtasun neurriak ere betetzen direla ikusi dugu. Loki edo entxufeak babestuta daudela, berogailuak ere bai, atek ez direla kolpe hutsarekin indarrez ixten eta leihoak gorago jarrita daudela. Zoluak ere ez direla labainak ikusi dugu, ez gelan bertan, ezta komunetan ere.

Garbitasuna eta txukuntasunari dagokionez, orohar, gelak zabalak, argitsuak eta ongi girotuak direla esan liteke, garbiak eta txukun atonduak, altzariak ere egoera onean zizutuztenak eta lorategiak ondo zainduta.

GURASOEN PARTEHARTZEA FALTA DA

Gurasoak informazio egarri dira, normala da haurraren garapenari buruz dena jakin nahi izatea semea edo alaba txiki-txikia denean. Eta hala ere, zentruen % 6ak baino ez ditu hilero haurrei buruzko idatziak etxera bidaltzen (duela lau urte gehiago ziren, % 20a). Hori bai, % 44,5ak egunero informazioa ematen duela dio (% 64 ziren duela lau urte) eta % 2,4ak onartzen du komunikazioa gurasoek eskatzen dutenean bakarrik gertatzen dela (% 7 zen aurreko txostenean). Gainera, hamarretik sei eskolatan ikusi dugu gurasoek inoiz edo oso gutxitan parte hartze dutela modu aktiboan eskolan hartzen diren erabakietan.

ESKOLAN JAN DEZAKETE?

Guk bisitatu ditugun eskolen eta haurtzaindegien % 93an bai, haurrek bertan jan dezakete, bai jantokia dagoelako edo katerin zerbitzua datorrelako. Gehienetan, haurrak alergikoak badira etxetik bazkaria ekartzeko gomendioa egiten zaie, bai behintzat, mezuak ez baditu beraien beharrezkoak asebetetzen. Horregatik komeni da, besteak beste, gurasoek menua ongi ezagutzea.

Haur eskolatan, jateko ordua ere, umeak hezitzeke unea izaten da, nola jan erakusten zaielako, autonomoak izaten ikasten dutelako eta besteekin harremanak izaten. Zentro batzuetan gurasoei eskatzen zaie prozesu honetan parte har dezatela eta menuak osatzen lagun dezatela. Ohikoa izaten da, bestalde, umei litxarrerriak, goxokiak eta antzekoak eramatea debekatzea.

Askaria bertan hartzea, hori ez da izaten hain ohikoa (hamarretik bitan ez da egiten) eta gosaria ere ez da normalean zentroetan ematen, umea gurasoen lan ordua baino lehen ekartzen duten kasuetan (zentruen % 66ak aukera hori ematen die gurasoei). Pribatuatan dira ohikoago, beti ere, halako zerbitzuak. //



GURASOEN ARDURA ERE BADA HAURRA EGOKITZEA ETA GUSTORA EGOTEA

Haurraren heziketa osoan zehar, baina bereziki jaiotzetik hiru urte bitartean, gurasoak ezin bestekoak direla esan beharrik ere ez dago. Eskolak badu, jakina, hezitzeke ardura baina familiarekin batera egin behar dio aurre erantzunkizun horri. Haur txikiari bere 'egokitze prozesuan' laguntzeko, hona hemen zenbait aholku:

1. Lehenbiziko egunetan umeak ordu gutxi egingo ditu bakarrik haurtzaindegian eta ordutegia zabaltzen joango da, pixkanaka. Zenbait eskolatan gurasoak bertan geratzen dira, haurra inguru berrira egokitu arte.
2. Ulertu egin behar da umearen deserosotasuna. Egokitzeak denbora eskatzen du.
3. Ez da komeni agur esateko unea luzatzea. Eta umea denboraz eraman behar da eskolar, presaka ibili beharrean.
4. Klaseak bukatzen direnean, haurrari galdetu egin behar zaio zer egin duen eta aurrerakuntzak ilusioz hartu.
5. Duda edo kezkarik badugu, hortxe daude hezitzaileak. Trebaturiko profesionalak dira eta lasaitu egingo gaituzte.

Haurra eskolan dagoen bitartean, gurasoek bere garapenari buruzko informazioa behar dute. Azken baten, eskolan irakasten zaiena eta etxean esaten zaiena, bide beretik joan behar dira eta bat etorri.

1. Haurra eskolan hasi baino lehen, guraso eta hezitzaileen arteko elkarriketa antolatzea komeni da. Umea ezagutzeke eta haurraren inguruak ere ezagutzeko lehen pausua izango da.
2. Gurasoek noizean behin zentrua bisitatzea komeni da, haurra nola dabilen jakiteko, hezitzaileek zein tratatu duten berarekin, zein eratako jolasak antolatzen dituzten... etabar.
3. Joan egin behar dute gurasoek hezitzaileek antolatutako bileretara eta beharrezko ikusten badute, beraiek ere bilerak eska ditzakete.
4. Zentroak antolatzen dituen jardueretan parte hartu behar dute gurasoek.